

# BILBOKO ITXAS-ADARRA

Bilboko itxasadarra ez da Nilo ibaia. Ez dago piramidarik alboan.

Baña ba dau zer ikusirik ur bastarrean. Iraganeko arrastoak eta etorkizuneko eraikuntzak parez pare dagoz urondoan.

Eta zer orreik ikusteko itsasontzian sartu eta ibilalditxu bat egitea baño oberik?

Bilbotik Santurtzira itsazontziz joango gara. Berrogeita hamar minutuko ibilaldia izango da, Urribartetik Santurtziraño, 14 bat kilometro.

Ibai oneri Nervion esaten dautsoe batzuk; besteek, oster, Ibaizabal. Dirudienez, eskaldunek Ibaizabal esaten eutsoen. Beraz, euskeraz ari gara ta, Ibaizabal esango dautsogu.



Motorra martxan ipiñi ta beingoan zubi eder baten ondoan gara :Calatrava arkitekto famatuak egiña. Emendik oso gertu dago Salbeko zubia. Itsasontziak Ibaizabaletik gora joyazenean, toki orretantxe ikusten eben aurrena Begoñako Basilika, eta ortxe errezatzen eutsoen Salbea Ama Birjiñari.

Salbeko zubiaren magalean ametsetako eraikuntza ageri da, orma okerregez eginda eta argia islatzen daben titaniozko xaflaz bildua: Guggengein Museoa.

Eta eskuman Deustuko Unibaersitatea.

**Ekar-Munetxe**

